



ZER
ALDIZKARIA

427. zenbakia
2016 BAGILLA

**Bizkaitarrei
Bizkaieraz**



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com



**Augustin
Zubikarai**



**Euskerazaleak alkartearen
Urteko batzar nagusia**

Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

2015-2016 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 48. IKASTAROA IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 13an

48. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 13 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitamabost euro) kontu onetan:

EUSKERA ZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
ES28 2095 0000 74 2000089615

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera erooten lagundu eiguazu!

Ebago orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 35 €.

Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errokoa.

Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

AUGUSTIN ZUBIKARAI

Zenon Uriguen pasiotarra



Ezagutze osoa.

Nork ez dau ezagutzen Euskal Errian Augustin Zubikarai jauna?

Bai euskal kultura daukagunak ao batez erantzungo dogu, Ondarroako gizon ospetsua, euskal idazlari errikoi eta ugaria, euskal aldizkari geienetan agertu dana.

Baña gauza bat da ezagutu, eta beste bat pertsonaien barri izatea.

Augustinen ainbeste barne bizialdi oso baliotsuak geratzen dira, ezagutu, eta jakin barik.

Nork ezagutzen dau Augustinen familia on eta zuzena, kristau bizitza zintzoa, barne-balioak, buru argi ta zuurra, aurtzaroko ikasteak, gaztaroko leen idazkiak, amai bako idazlanak, gerrateko zorigatxak eta gudu ostean, atzerrian egindako ibillera latzak.

Gure asmo bizia izango da, gai onetan, Augustinen ezagutze osoa eskaintzea.

Ondarroa, familia ta aurtzaroa.

Augustin jauna Ondarroa, arrantzale-errian jaioa dogu 1914an azaroaren 3an. Eta il, 2004an uztaillak 12an.

Galdakaon bere gurasoak, Salvador eta Ana Bedailauneta izan ziran, bederatzi neba-arreba izanik.

Aita arotza zan.

Aurtzaroon, Gurutzeko Alabak lekaimen eskolan gogoz egin ebazan leen ikaskuntzak.

Ondarroan, Luistarren bazkuneko zuzendari jarri eben, fedearen alde lan ona egiñik, eta amar urtegaz, Saturrarango Seminarioan ikasten diardu, egunero liburu eta itxasoa begi aurrean zituala.

Ikasi naia ta itxaso urdiña barne muiñetan josirik daukoz.

Geroago gaixotuta ikusten dogu, eta etxe barruan egiten ditu idazlan batzuk.

Urtebete barru abade izateko asmo eta gogoia alde batera utzirik, filosofia jakintzari uko egiten dautso.

Euskal idazle gaztea.

Augustinek, berezko eta jatorrizko sena dau bere buruaren muiñetan amai bako idazkiak idazteko, iturburutik sortzen dan ur garden-ugaria lez.

Gaztaroan egindako idazkiak argitaratzen dauz, Jaungoiko-Zale eta Ekin aldizkarietan.

Orretarako, Zornotzara etorri da bertan bizitzeko.

Baña gaixobera da, eta Ondarroatik bialduko ditu idazkiak, euskeraz ta erderaz.

1933an, emeretzi urtekin, Euskadi aldizkarian asiko da argitaratzen, antzerkiak esaterako: “Aberriagaz bizi”.

Bere buruaren argitasuna eta idazteko gaitasuna agirian jartzen ditu, eta onartuak dira aldizkarietan eta irakurleen artean.

1937

Frankotarrak Bilbora urreratzean, Augustinek, anka egingo dau Iparraldera.

Augustin ez da geldi egoteko mutilla, eta gerraren zoritxarrak ta erbesteko barkartadea ezin kendu ta uxatu bere burutik: “Euskalduna astekarian, ekin eta ekin, argitaratuko ditu idazkiak”.

Geroago, 1937ko urtean nazionalak ekaiñaren 19an Bilbo menperatu ostean, uri onetara etorriko da.

Sasoi onetan Augustin, 23 urteko mutil gaztea da, eta emen asiko dira gudu ostean zorrigaiztoko ezbearrak.

Ezin esan alakoak dira, bere biotz barruko urradura lazgarriak.

Aralar batailloan bearturik jasango ditu irañak eta basatien berba zantar ta meatxuak, bera eta euskaldunen aurka.

Batalloi onetan, amaika ibillera egin bearko ditu, erri batetik bestera, Santander ta Asturias aldera, eta geroago, Frantzia ta Españako erri batzuetara.

Azkenik, errugabea, Figuerasen giltzapean sartu dabe eta Gibraltar aldera eroan.

1941ean etxeratu zan.

Zubikarai gazteak, bere biotzaren miñ bizia modu onetan azaltzen dau: “Gu Euskaldun gaixoak, etxe gabeko euskaldunak, salduta gabiltza:

“Lur gorri-burdin lur, au ez da-nire ama lur”.





Familia eta ogibidea.

Joanak joan eta bizitza barri bat asi, Ondarroan ogibidea aurkitu eta familia barria sortu.

Zorionez, Mutrikun eskeintzen dautse lanbidea, eta zoragarrizko ogibidea 40 urtetan.

1942ko urtean ezkondu zan Maria Jesús Erkiagarekin, sei seme alaba izanik.

Jose Agustin, Joan Anton, Alejandro, Beatriz, Maria Jesus eta Javier.

Idazlari oparoa.

Santi Onaindia eta Augustin adiskide-miñak, Euskal Errian idazle fiñak, eta lagun leialak, alkarri laguntzeko egiñak.

Ona emen Augustinek egiñiko idazlanak:

Liburuak 50 inguru, edestia, biografia, autobiografia, erri jakintzak, eleberrriak, kontakizunak, eta antzerkiak.

Lete jaunak diño “Gixi dira Euskal Errian, berak eskaiñi duen aña eskaini duenik”.

Aipatzekoak dira Augustinek sorturiko aldizkariak:

-Ondarroa 1982ko elebiduna, Ondarroako kultur etxeak, Arranondo, 1990 eta kultur alkarteak, Arrantzale Erriko aldizkari, Arrantzaleak eta Itxasoa etb.

-Euskerazaintzan zuzendari izan zan, jakituria eta oiturak agertzen dira.

Aldizkari askotan idazle ta partaide izan zan:

Agur, Antzerti, Arantzazu, Arranondo, Boga-boga, Argia, Eguna, Ekin, Euskalduna, Euskadi, Goiz argi, Gudari, Principe de Viana, Jaungoiko Zale, Karmel, Zer, Zeruko Argia, Saski-Naski.

Gaiak, eleberrri eta kontakizunak, erri jakintza, erri oiturak eta bizitza, itxaso ta arrantxa.

Sariak eta omenaldiak

Augustin idazlearen osperrik aundiena, Antzerkia izan da, 50 antzerki argitaratuak.

Lan orretan sari ugari eskuratu ditu, ainbat lekutan eratutako saioetan.

Ekintza onek, aren bizitza osoa artzen dau.

Lenengo Antzerkia 21 urte zituela idatzi eban, eta Euskadi egunkarian argitaratu.

Augustin, Euskal Erriko antzerkigille aundienatarikoa dogu.

-Augustinek, “Andres Eliseo Mañariku”aren saria, Jose Bergara Diputatu Nagusia eta Tomas Uribebarria Kultura diputatuaren eskutik artu eban, bere etxean gaxorik zegoala.

-1961ean Euskaldun urgazle izendatua izan zan, eta geroago, oorezko euskaltzain, ta Euskerazaintza Akademian lendakari orde izan zan.

-1986ko apirillaren 18an, Bizkaiko Foru Aldundiak, omenaldia eskeini eutson, Jose Maria Makua diputatu nagusiaren eskutik.




-1992an eta Euskerazaintza alkartearen antolakuntza bidez, ondo merezitako omenaldi gozo eta unkiagarria egin eutsoen Ondarroan, eta ainbat kultur ekintza antolatu ziren, Augustin seme ospetsuaren alde.

Ondarroako erriak, aren izena duen plaza nagusian, gerritik gorako irudia ezarri eban bere omenez.

-Augustinek, buru argi ta berezia, eta biotz sentibera dau poesia gozo ta mamintsuak egiteko. Bere ainbat olerki, sarituak izan ziran.

Bai, ondo mereziak ditu Augustinek inun diran sariak, eta omenaldiak artzeko bere bizi osoa euskeraren alde jo ta ke ekin ebalako.

**Euskal idazle artean Augustin,
“idazlari erraldoia da”**



EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN URTEKO BATZAR NAGUSIA



Euskerazaleak Alkartearen Zuzendari Batzordeak, aurretiaz deia eginda, Batzar Nagusia egin eban.

Bilbaon, Kolon de Larreategiren kaleko 14n zenbakian, 2gn solairuan dagon Euskerazaleak Alkartearen giza-etxean batzartu ziran.

Batzar onetara, aitatzen diran batzarkideak batu ziran:

- Arrieta´tar Koldobike.
- Arrieta´tar Itziar.
- Fernandez´tar Karmele.
- Egurrola´tar Iñaki.
- Barroeta´tar Klaudio.
- Atutxa´tar Paul.

AURKEZPENA:

Leenengo, batzarrari asiera emoteko, Barroeta tar Klaudio Euskerazaleen alkarteko lendakariak batzarraren antolakuntza zelango baldintzatan egingo genduan adierazi euskun.

Ondoren, zutunik abestu euskun emen agertzen dan bertsoa :

ASIERAN

Seme-alaba onak
batzen dira pozez,
gurasoen ondoan,
alkar barri emonez:
alantxe batu gara,
oitura dogun lez,
Euskerazalekoak
zintzo ta leialez,
urtean eindakoa
jakiteko posez.

1'go .- IDAZKARIA:

Atutxa idazkariak, aurreko Batzar-Nagusiaren 2015eko agiria irakurri eban eta ontzat artu zan.

2'gn .- 2.014ko DIRU KONTUAK:

Karmele arduradunak auxe esan euskun:

Aurten be, betiko moduan etxeko kontuak emongo dautsuedaz.

Aurten, igaz emon euskun antzera be, dirua emoten ba dauskue, egutegia, ikasturtea, ipuin sariketa, web orria, euskal astea ta beste ekintza batzuk egingo dira.

Ekintza orreik egiteko, guk betiko lez diru kopurutik



%40a ipiñi bear dogu.

Eskerrak emon, Aldundiari eta Udalari.

Eta beste barik datorren urte arte.

Karmele Fernández (diruzaiña)

3'gn.-URTEKO EKINTZAREN AZALPENA:

Eta datorren urteko arlo onen azalpena, Barroeta-tar Klaudiok adierazi eban lendarari lez.

EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN 2.015n URTEKO EKINTZAK

Adiskideok:

Urte guztietan lez, Batzar-Nagusi onetan, urte barruan egin doguzan lanen barria emoten dogu.

ILLEROKO BATZARRAK eta URTEROKOA:

Utsik egin barik bete dogu illeroko batzarra eta urterokoa, Atutxatar Paulok gure bazkide eta idazkariaren BATZAR AGIRIETAN ikusi dai-
teken lez.

IPUIN-SARIKETA:

Urte guztietan lez eginda, oneik izan dira aurtengo sarituak:

1'go SARIA:	Arantza Leniz
2'gn SARIA:	Juan Manuel Etxebarria
3'gn SARIA:	Asier Legarreta
4'gn SARIA:	Jose Mari Murua
5'gn SARIA:	Palmi Merino

EUSKAL ASTEA:

Euskeraren Astea be ospatu genduan Zemendiaren 24'ko. egunetik 28eko egunerarte:

- 24- Etxebarria tar Juan Manuel
- 25- Erika Uranga
- 26- Larrea tar Angel
- 27- Klaudio Barroeta
- 28- Atutxa tar Paul

TAKOA BIZKAIERAZ

Betiko lez takoa argitaratu dogu Bizkaiko Foru Aldundiaren diru laguntzarekin.

Diru laguntza eukiten badogu, jarraituko dogu Takoa argitaratzen, baña ori murrizten badauz-

kue ez da erreza izango guk bakarrik argitaratzea.

Aurten ez dakigu zer gertatuko dan; orregaitik, Uztaillarte ez dogu ezer ja-kingo.

Guk, orritxuaren atzean agertzen dan textoa idazten dogu.

Konturatuko zarie baiña, urtero desbardiña dala, eta 365 zatitxu orreik idaztea lan aztuna dala, ez bardiñak izatea gura ezkeroz.

Betiko lez, takoa Durangoko Azokan, arrakasta aundia izan eban.

Jendea oitu da an eskatzen eta zuzen joaten dira Gerediaga Elkarteko tokira gure takoa eskatzera, baita Elkar eta Labayrugana be.

Gainera “Takoa bizkaieraz” eskatzen dabe.

Beste leku batzuetan be banatzen dogu: eskoletan, ikastoletan, parroki batzuetan (Iurreta, Gorozika, Zornotza, Ondarroa, Mungia, Bakio Bermeo e.a.) eta mugako errietan Aretxabaleta, Bergara, Aramaio, Motriku. Gasteiz, e.a.

EUSKERAZALEAK INTERNET´EN

Gure web orria ortxe jarraitzen dau, eta orain arte **650.000** ikusletik gora euki doguz. Astobiza´tar Jokin´eri ezker.

Eskatzen daben argibide barriagaitik, badakigu geiena, Unibertsitatetik eta orrelako lekuetatik datozela ainbeste ikusle. (Deustu eta Errioxako goi-ikastetxeetatik)

Barruen daukazan argibide barriak obetzen saiatzen gara, naiz eta batzuetan antzekoak dirala uste izan.

Prest gagoz beste lan batzuk jartzeko baiña “baime-nak” bear doguz eta ez da erreza ori lortzea.

Baten batek or ipintzeko zeozer baleuko, prest gagoz artzeko.

Ez dauka zetan bizkaieraz izan bearrik, “erriko euskerea” izanez gero.





IRAKASKINTZA:

Urte guztietan lez, jarraitu dogu asieratik Alkarte onen elburua izan dan Euskera irakastea.

Ikasleak aspaldian ez dira gitxiagotu eta ez ugaritu be. Irakasle betikoak zintzo jarraitzen dabe.

“ZER” ALDIZKARIA:

Gure “ZER” aldizkaria illero agertu da eta asko poztuten gaitu lan onek, bizkaieraz argitaratzen dan aldizkari bakarra dalako.

Txaloak, irarkolako arduradunai, ZER aldizkaria edertu egin dabelako.

ZER aldizkarian agertzen diran:

- Euskalerriko edestia.
- Kolon IVn Karlos semearen jaio ta bizi-tza.

Biografietan:

- Arana ta Goiri´tar Sabinorena.
- Humbolt.
- Agirre´tar Txomin.
- Zelaya ta Ibarra´tar Adrian.
- Zubikarai´tar Augustin.
- Mañarikuua´tar andres.

-Zipitria´tar Elvira.

-Arzelus´tar Amale, eta abar luze bat.

Jendekuntz arloetan:

- Gandiaga´tar Bitorianeren olerkiak.
- Bizkai Irratia.
- Garmendia´tar Txominen bertsoak.
- Abesti oiak.
- Utsak (euskaldun barrientzat).
- Margoak, argazkiak, irudiak

Argitaratzeko ez daukagu arazo aundirik, eta errietan ezin dogu diruaren ordaiñik artu, gitxik ordaintzen dauelako BBK´ko gure aurrezki gutunean.

Eskerrak Foru Aldundia eta Bilboko Udalari, bere laguntzagaitik.

Alan da be, aurrera egiteko asmotan gagoz. Eta zuk be, euskera bizia, errikoa, maite dozunez, lagundu zeinke era onetara:

- bazkide barrien izena emonaz.
- ZER aldizkarian atarateko lanak bialduz.
- ekonomi arloan eskua luzatuz.
- eta diru biltzaleak aurkeztuz.

ETXEA:

Badaukaguz arazoak etxe zarra dalako, eta “zerga-berezi” edo ordainketa aundiak diralako daukaguzenak.

Igaz 2014an ordainketa asko egin bear genduzan, 2.014ko Dagonillan amaitu doguzenak.

ZUZENDARITZAREN EGOKITASUNA:

LENDAKARIA.– Barroeta ta Amorrortu´tar Klaudio.

LENDAKARI ORDEA.– Egurrola ta Madariaga´tar Iñaki.

IDAZKARIA.– Atutxa eta Agirre´tar Paul.

DIRUZAINA.– Fernandez eta Ruiz de Eskide´tar Karmele.

MAIKOA.– Arrieta ta Goya´tar Begoñe.

MAIKOA.– Arrieta ta Goya´tar Koldobike.

MAIKOA.– Astobiza ta Uriarte´tar Jokin.

MAIKOA.– Arrieta ta Goya´tar Itziar.

Ontzat artu ziran batzarkide guztien aldetik, eta eten barik jarraituko dabe aurrerantzean.

Amaitzeko, eskerrak emon bear dautsoguz Bizkaiko Foru Aldundiari ta Bilboko Udaletxeari.

Ez gitxiago idazleai, irakurle eta lankide guztiai. Bai ta eskerrak be irakasle eta ikasleei, zintzoak izategaitik.

Ekintza guzti oneik, ontzat artzen dira.

GALDE-ERANTZUNAK:

Aurten gogoratu egin bear izan doguz Arzelus´tar Amale eta Zelaya ta Ibarra´tar Adrian, gure maikide eta bazkide izanekoak.

Ez ziran egon galde-erantzunik, poz aldiko solasketa baten amaitu gendulako batzarra.

AMAIERA:

Klaudio lendakariak, batzarrari amaiera emoteko zutundu zan, eta bertso eder au eskeiñi euskun:



Amaiera

Baserritar zintzoak,
udazken aldean,
pozik ikuzten ditu
frutuak soloan.

**EUSKERAZALEAK BE
BATZAR NAGUSIAN,
ikusi ditu lanak
itxura ederrean.**

**Aurrera segi daigun
gabiltzan bidean.**

MUNETXE

Beste barik eta gaueko zazpiterdiak zirala,
batzarra amaitutzat emon genduan.

<i>Klaudio</i>	<i>Paulo</i>
<i>Barroeta Amorrortu</i>	<i>Atutxa Agirre</i>
LENDAKARIA	IDAZKARIA

Nere aitorketa

- 1.- Gure ama zana asto gaiñean
Berrobitik Tolosara,
etxeko emaitzak artuta noski
larunbatez azokara;
nobedadea, astotik jetxi,
koñaduan errotara,
zazpi illabetez orrela jaio
omen nintzan lur ontara.
- 2.- Zerbait soiñeko jazteko ere
txikiegia artean,
goata tarten jarri ninduten
zapata kaja batean;
lekuko ziranak diote gaur
aoa bete-bestean,
otsainaren irua omen zan
ogei ta amalauko urtean.
- 3.- Guraso eta gaiñontzekoak
amaika aldiz esana,
jaiotzatikan ez nintzala ez
suerte oneko izana;
goata tar-tean nengoan noski
ia ikusten etzana,
Tontola Beran jaio bear da
errotan jaio nintzana.
- 4.- Gauz askotan berandu baiño
jaiotzez beintzat goiztarra,
erortzeko zorian zegona
genduan baserri zarra;
maiorazkoa nintzala ere
dadukat esan bearra,
ixtimazio gutxikoa zan
era artako maiztarra.
- 5.- Gose-egarririk ez gendun izan
ori bazun baserriak,
baiña urrir izaten nituan
karteraren alderdiak;
Jaungoiko onak ikusten nunbait
sarritan neuzkan premiak,
askoren pare moldatzen nintzan
eskerrak bertso berriak.
- 6.- Bertsolaritzan alegintzeko
ez naiz bizitu zalantzan,
sasoi nun eta parranda batzuk
neri etzidaten erasan;
kantatzen genduan tabernetan
berdin kalean da plazan,
da ez dakit zer gertatuko zan
bertsorik izan ez bazan.
- 7.- Jai eguna bertsotan eta
astean nekazaritzan,
langintza asko probatua naiz
mundu ontako bizitzan;
esaera zarrak, orrelakoak,
beti arlote zeritzan,
nik izan dedan suerte au ere
guztiak ez dute mizan.
- 8.- Bertsolaritza maite nuan da
beti saiatu naiz ontzen,
asi nintzan igandean juan,
astelenean etortzen;
egia esan gurasoakin
ondo ez nintzan konpontzen,
maiorazkoa ta bertsolaria
ez bai dirade ezkontzen.

9.- Langillea bakarrikan ez da
baserrian bear dana,
nekazari onak jai eta aste
beti izaten du lana;
baldin bada beintzat ikulluan
esne-bei onak dauzkana,
mutil zartzeko bidea ere
ortatik askorengana.

10.- Baserritako bizimoduan
askotan dago esana
komeni dala mutil zarren bat
oso-oso ez dana;
Euskalerrian orrelakoa
baserri askotan izana,
ondo biziko da orrelako bat
bere etxean daukana.

11.- Bertsolaria izateakin
ez naiz aurkitzen damuan,
garai batean txanpona pranko
berari esker banuan
deia pranko bazetorren da
pozikan oi nintzan juan,
gaur dadukaten andrea ere
orrela billatu nuan.

12.- Bertsoetara prankotan noski
joan nintzan Zizurkilla,
geiegi estutu gabe baiño
asita nengoan billa;
orain artean ondo gabiltza
da berari esker milla,
da Jaungoikoak nai duan arte
alaxe izan dedilla.

Txomin Garmendia



Kristobal Kolon, Nafarroako IVn Karlos erregearen Semea izan ote zan? (XII)

Juduak, itsasoko mapagintzan Mallorkako ugartearen jakiten ebana.

Llull'tar Raimundok, eskolaren eredu zko jakituriz, katalanez idatzi ta margoztu ebezan itsas-eskutitz edo mapak, garrantzi aundienetarikoak dira, askoz geiago, itsas-osteko ardurarorretan ba ziran, eta eginkizun orreik dira aurkezten dauskuezanak, Mallorkan egon ziran itsas-osteko ikerketaren zaletasunezkoak.

Kontuan artu bear dogu, juduak orduko denboran euki eben merkantil artu-emonakaz, mauri ta kristau mundu guztitik zabaldua aurkezten zirela, eta ondo baiño obeto ezagutzen ebezala Lur-Arteko itsasoa eta beste itsasoetatik ur gainean ibilteko bear ebezan orduko tresneri guztiak.

Ez da arritzekoa ba, Kolonek alango Kristau sinismena ta itsas-zaletasunezko jakituria eukitea, Llull'tar Raimundo, Abraham



Cresques eta bere seme Jafuda juduaren jakituri aunditik asko eukelako ikasita.

1.391kako urtean kristau zoro batzuk, Kall deritxon judu auzunea erasotu eben, eta 300 judu inguru il ondoren, galazo eutsoen judutarrak kristautasunezko sinismenara itzuli zitezen edo bestela lur aietatik alde egien.

Sinismena aldatu eben artean, Kreskes'tar Jafuda be egon zan, eta izena aldatu bearrean agertuta, onek Ribes'tar Jaumerena artu eban.



Eta sinismena aldatu gura ez eben beste batzuk, Kolontarren antzera, Flandesera aldatu ziran.

1.391kako urtean, kristautasunezko sinismenara aldatu ziran judu artean, batzuk Kolonen izena artu eben, emendik Flandesera zabalduta.

Kolon Kataluñako abizen bat da, txori Kolonbus'en izenetik artuta dagoena, eta I Jaime Aragoiko erregeak ugarte au 1.229an menperatu ebenetik, eurak daukien oiturazko abizen batera biurtu zan.

1.394ko urtean Ribes'tar Jaume edo Jefuda'tar Kreskes onek, Bartzelonara joan zan mapagintzan.

Eta 1.412ko urtean, Portugaleko Itsasgizon'tar Enrike errege semeak deituta, Portugalera joan zan, bertan bideratzeko Enrikek sort-araziko eban mapagintzaren lantokia.

1.450eko urtean Mallorkako errigizartearen artean, auzitegi-koak⁽¹⁾ erritarren aurka matxinatu ziranean, merkataria aberatsaren artean askok, Anjoutar Renatori lagundu eutsoen, Aragoiko errege biotz-andiko Vn Alfonsoren aurka.

Eta merkataria aberats onein artean, Kasenabe'tar Gillaume eta Koullon'tar Kristobal, Kolontar Kristobalen osabak zirenak aurkezten ziran.

Dana dala emen agertzen da Kolontar Juan, igeslari bi ta andre Margalidaren aita.

Baiña, nor ote zan Margalinda ori ?.

Margarita andere-lagun bat izan zan, IVn Karloseri atxilotutako denboratan laguntzen egonekua.

1.459ko urte onen amaieran, IVn Karlos eta Margaritaren artean maitetasunezko laztankerietan ibilita, 1.460ko Bagillan seme bat jaio jakien, eta IVn Karlos bertan ez egon arren, jakin ebalako aurdun egon zala, Mallorkako gotzai ta erki edo gudu-jauriari idatzi eutsen eskutiz bana, gertakizun orren barriakaz arduratu zitezen, eta egia izan bear da, erki edo gudu-jauriariak eta gotzaiñak ardua aundiz erantzun ebela, IVn Karlosek osteria idazten dautsielako beste eskutiz bat eskerrak emonez.


(1) Auzitegi-koak = forenses.

Eta jaio zan ume ori izan zan Kolon'tar Kristobal, Amerikako lurraren agerketak lortu ebezanak.

3. ZATIAN.

Oar txiki bat.

Mundu onen arrazoidunezko gizakiak izanda, eta Jainkoak gai oneri bereztu eutsozan legeak, guretzat, egiten dogun gauza gustiarentzat bardiñak diralako, arduraz, gogora ekartzen dogun egitamuzko lan guztiaren aurrean egin beargeunken lez, aurkeztu doguz lan onentzat oiñarrizko baldintzak zeintzuk direzan, antzerki onetarako aur-



keztu doguzan antzezlarien bizitzakaz, euren denborako giroan.

Orain, guazen Kolontar Kristobalen jaio ta bere bizitzazko ezjakiñak argituten, Berd eta Martorell'tar Grabielen laguntzarekin.

Mundu onetan, eta gu "gizakitutakoak" sortzailleak ez garelako, gure gauza guztietarako egiten doguzan asmakizunezko egitarauetan, Jainkoak bereztuta ta danontzat bardiñak diran legearen baldintzak erabili bear doguz, tresneri edo ta oiñarrizko elementuak lez.

Eta ortik aurrera, zentzu ta ardura aundiz jaso edo ta gauzatu, gauzatu bear direnak bizi garen serbitzurako; bestela egiten dogun guztia, oker, ankaz-gora, zentzubage ta neurrian edozein gauza urtengo leukelako, beartsu edo onbear eta aberastuten diranen artean gaur sortzen jakun lez, orekak leku guztietatik galdu ondoren.

Bereztasunaren legezko baldintza orreik dira, gaurko Europaren politikuak kontuan artu bear dituzenak gauza guztietan, eta ardua bardiñakin, diruaren antolaketak egiten dabezenean.

Gaiak, beren Ludi irudiaren izaerarako, daukazan mukulluak orokorrezko askatasunean bananduta egonaz batera, bere eraikitasunean mukullu arteko-gintzan daukan erakarrezko indarra, eurak osagarritasunezkoak izan zitezken legea da, eta gurentzat eragilletasunezko bizi-tresneri bat izan daiten.

Orregaitik, “Jaioten garan guztien bear-bearezko ordezkartzan zor-eskubide arduran bardiñak izanda, Ludi onek daukazan bereztasundutako lege orreik dira, gure arduradunezko arima gizatuari, lege bardiñean osagarrizkoak izatera alegintzen dauzkuna, Jainkoaren legeagaz, zeregiñ bardiña dauka-gulako”.

Eta egiten doguzan gauza guztiak Jainkoari begira, azturazko maitasun osoan egiten diran lez, bide orreitan eraikitako etxe, auzo, erri, eskualde edo lurralde, aberri, eta errigizartearen askatasunezko eskubide orreik dira oiñarri lez ipini bear dituguzenak, bizitza onetan askatasunezko orekan irautea gura badogu.

Danon lotsagizunezko ardureak bear dituguzelako ortik aurrera, gai-gizaren bizitza onen egitamuak zentzuz gauzatzeko, eta alkar erabili bear doguzan osagarritasunezko bideen ulermenak, orekazko zentzun baten eroan dagiguzan.


Guzti orreik kontuan eukinda, ez bagaude lau gizaki nagusitasunezkoagaitik bideratuta, ainbeste urte menperatzailletasunezko

agindupean egonda, ori be al izan leikena dalako, eta nire ustez “UTS EGIN BARIK”.

Gaurko politikuak, gaiaren eta gizaren eskubideak ez dabezelako oiñarritzen, agindu egiten dabezan gauza guztietan, sortzen dan entrabaloaren eragipeneko indarragaz, gai-giza arloetan dana agertzen da nastuta lez.

Gaiaren-orekan: Itsas-errekako urak eta mendi-lur-aizeak zikinduta.

Eta gizaren arloetan: lan-eza, lapurtza, negarra, gozea, gaitzaldi, elde edo izurriteak, eriotza, borroka, aitu eziña, eta arduragabekerizko itsutasun aundi baten.



Bizitzeko egiten doguzan gauzaren mozkiñ guztiak, batzango edo agintari-zaleak euren kontrolpean eukiteko, guda-indarrezko keiñada gogorrak erabillita, nai gai edo ta danon giza eskubidearen ardurak kendu egiten dauskuez, eta ez gero eurak egiteko danok egin bear doguzenak, ostera guri beartzeko baiño, eurak gura daben eratara betetea, eten bageko menperatzail ekintza baten.

Len, munduko borroka nagusi bategaz, dana utsezko zenbakian ipinita lez azten ziran ostera bizitzarako bear zan guztia eraikitzen, euren poltzilluak beti berriz beteta eukiteko, baiña gaur beste olango borroka bateri eurak be bildur direlako, demokraziaren indar bidez, maltzurrezko guzurak eten barik gero ta indar geiagorekin argitzen dira, eta orain 1.687 urte bereztasunaren aurka Nizean asmatu zan batzangotasunaren GOITIK BERAKO AGINTARITZAREN GIZA-GORPUTZA ORI, GUZTIZ USTELDUTA LEZ AGERTZEN JAKU.

Zergaitik ?.

Gure bizitzaren epe laburrerako, Jainkoaren legeakin beartuta agertzen gara lez, argi erakusten jaku:

A) Osagarritasunezkoak garela jaioten garan guztiak.

B) Kundetzaille edo gai onen eragilletasunerako jaioten garela.



D) Gure eragilletasunean kontuan artu bear dituguzela, gai ta giza guztiaren eskubideak, bakoitzak, talde, leiñu, edo ta errigizarteak euren bereztutasunezko aztura bidetik izkuntzagaz sortu ebezan nortasunezko bereiztasunak, ezeren aitzakia barik.

E) Asmatzaillearen almenak bakarrik eukinda, gure almenean ez daelako iñungo izatasunik: “irazale, sortarazle edo eta sortzailletasunezko arloetan”, gure norkerizko alegiñetan, iñorentzat ezeren legerik egin barik, alegiñ guzti orreik Jainkoaren legeditik artu beardiranak diralako, euren kanpotik lege guzti orreik, menperatzailleak biurtzen diralako,


F) Ala... mundu oneitara, beste gauza baten bat egiteko etorri ote gara ?.

Atutxa'tar Paul

Zornotza'n 2.015'eko urtean Epailla'ren 21'ean

Euskaldun barrientzat ikasten

Zazpi utsak



Sudoku

	7		2		1		3	
3								9
		9		6		5		
	6	2		4		8	5	
	3			2			4	
	9	8		1		2	7	
		1		3		7		
8								4
	4		5		9		6	

7	4	3	5	8	9	1	6	2
8	5	6	1	7	2	3	9	4
9	2	1	6	3	4	7	8	5
4	9	8	3	1	5	2	7	6
5	3	7	8	2	6	9	4	1
1	6	2	9	4	7	8	5	3
2	8	9	4	6	3	5	1	7
3	1	4	7	5	8	6	2	9
6	7	5	2	9	1	4	3	8

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar

..... kalean (auzoan..... zenbakian

..... errian,errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko (ogeitamabost euro) kontu onetan:

Euskerazaleak, Bilbao bizkaia kutxa : ES28 2095 0000 74 2000089615 zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN **"ZER"**. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!



AIZE EGOA

**Aize egoa
gau epela
ilargiaren argi
mutxurdinak leioetan
teilatuan katu bi
bide ertzean zenbait kanta
gau erdiz arnoari**

**Argaineko sorgin zaarra
keinuka ilargiari.**

Butroiko gaztelua